## UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA

**2012ko urriaren 5a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hamabigarren urteko urriaren bortzean, ortzirala, arratsaldeko zortzietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, ohiko bileran eta lehenengo deialdian, Peio Etxabide Gartzia alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri direla: Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, Ainara Flores Compains, Severiano Txoperena Matxikote, Izaro Mitxelena Rekondo, Jose E. del Río Echeverria, José Luis Echegaray Andueza, José Esteban Echeveste Apezteguía, Victoriano Ruiz Álvarez eta María Victoria Gortari Aldave jaun-andreak.

Pedro Apezteguia Alzugaray zinegotzi jauna ez da agertu, ez etorri izana justifikatuta.

Idazkari lanetan, Andoni Esparza Leibar jauna ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz, bilkura hasi da, eta, deialdiko gai-zerrendari jarraituz, gai hauei buruz aritu dira:

**1 – AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.**

Osoko bilkurak aho batez azken bilkuraren akta onartu du, 2012ko irailaren 7koa.

## SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL AYUNTAMIENTO

**5 de octubre de 2012**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las veinte horas del viernes cinco de octubre del año dos mil doce, se reúne, en sesión ordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Peio Etxabide Gartzia y con la asistencia de los siguientes concejales: don Koldo Aingeru Erquicia Ochoteco, doña Ainara Flores Compains, don Severiano Txoperena Matxikote, doña Izaro Mitxelena Rekondo, don José E. del Río Echeverria, don José Luis Echegaray Andueza, don José Esteban Echeveste Apezteguía, don Victoriano Ruiz Álvarez y doña María Victoria Gortari Aldave.

No acude, habiendo excusado su inasistencia, el concejal don Pedro Apezteguía Alzugaray.

Actúa como secretario, el de la Corporación, don Andoni Esparza Leibar.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 – APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN.**

El Pleno aprueba por unanimidad el acta de la última sesión, celebrada el día 7 de septiembre de

2012.

**2 – BEHIN BETIKO ONESPENA UDAL PLANAREN ALDAKETA XEHAKATUARI, BIOMASA INSTALAZIOA JARTZEKO.**

Udalak, 2012ko uztailaren 27an eginiko Osoko Bilkuran, hasiera batean onetsi zuen *Lesakako Udal Planaren aldaketa xehakatua. Komentu kalea,* Kultura Etxean biomasaz horniturikoa azpiegitura energetikoaren ezarpena ahalbidetzeko. Dokumentua Nasuvinsako J. Javier Pascual Goñi arkitekto jaunak idatzi du, enpresa horrek aholkua ematen baitio Udalari hirigintza arloan.

Abuztuaren 7an *Diario de Noticias*-ean eta *Diario de Navarra*-n eta 2012ko abuztuaren 8ko 156. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaraturiko ediktuen bitartez, erakusketa publikoan jarri zen aipatu dokumentu hori. Dagokion epean alegazio-idazki bat bakarra aurkeztu da, Jose Luis Echegaray Andueza jaunak sinatua, EAJ-PNV udal taldearen izenean (2.399. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean). Hartan bi alegazio planteatzen dira. Lehenengoak dio ez zela zinegotzien eskura izan aferaren dokumentazioa osoko bilkura deitu zen unetik. Bigarrenak, motibazioaren absentziaz dihardu antolamendu urbanistikoko erabakien izaeraren gainean.

Idazki honi erantzuteko, Marcos Erro Martinez abokatu jaunak txosten bat egin du,

**2 – APROBACIÓN DEFINITIVA DE LA MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN MUNICIPAL PARA LA INSTALACIÓN DE BIOMASA.**

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 27 de julio de 2012, aprobó inicialmente la *Modificación pormenorizada del Plan Municipal de Lesaka. Komentu kalea,* para hacer posible la implantación de una infraestructura energética por biomasa en la Casa de Cultura. El documento ha sido redactado por el arquitecto don J. Javier Pascual Goñi, de Nasuvinsa, empresa asesora del Ayuntamiento en materia urbanística.

Mediante edictos publicados en el Diario de Noticias y en el Diario de Navarra el 7 de agosto y en el Boletín Oficial de Navarra nº 156, de 8 de agosto de 2012, dicho documento fue sometido a información pública. Durante el periodo correspondiente ha sido presentado un único escrito de alegaciones, suscrito por don José Luis Echegaray Andueza en nombre y representación del grupo municipal de EAJ-PNV (entrada nº 2.399 en el Registro General del Ayuntamiento). En el mismo se plantean dos alegaciones. La primera es que no estuvo a disposición de los concejales la documentación del asunto a partir de la convocatoria de la sesión plenaria. La segunda se refiere a la ausencia de motivación sobre el carácter de las determinaciones de ordenación urbanística.

En respuesta a este escrito ha sido emitido un informe, por el abogado don Marcos Erro

2012ko urriaren 1ean.

Aferetako lehenari dagokionez, adierazten du: "Iruditzen zaigu alegazioen bidea ez dela prozedura egokia aldaketa urbanistikorako hasierako onespen baten aitzinean zinegotzien urraturiko eskubide posibleak erreklamatzeko, Osoko Bilkuraren gai-zerrendan sartu diren gaien dokumentazio guzia eskura izateari dagokionean. Baina, nahiz eta Udalak alegazioa berregokitu eta hura berraztertze-errekurtsotzat hartu, hau ezordukoa izanen litzateke...".

Bigarren aferaren harira, adierazten du espedientean dagoen dokumentazioan, eta zehazki Nasuvinsako arkitektoak sinaturiko agirian, justifikatzen dela zertaz den aldaketa puntuala eta xehakatua. Horri buruz, Jose Luis Echegaray jaunak zera dio:

"Aldaketa honen hasierako onespena egin zen, gure irudikoz, era irregularrean, erdi gordeka aurkeztu baitzen oporrak baino lehenagoko azkeneko osoko bilkuran, ezin errekurritu ahal izateko eta beharrezko dokumentaziorik gabe hura aztertzeko eta geroago eztabaidatzeko; hori dela eta, alegazio bat aurkeztu genuen, gaur arte ez dena ebatzi. Beraz, iruditzen zaigu ezin dela behin betiko onespen hau onartu aipatu alegazioa ebazten ez den artean.

Halaber, erran behar dut, mota honetako asmakeria aurreikusten genuenez gero, BILDUren aldetik gure alegazioarekiko (azkenean gertatu den bezala), Nafarroako Administrazio auzitegiaren aitzinean ere errekurtsoa aurkeztu dugula, izapidera onartu dena eta ebazteke dagoena.

Martínez, con fecha 1 de octubre de 2012.

En relación a la primera de las cuestiones señala: "Entendemos que la vía de alegaciones ante una aprobación inicial para modificación urbanística no es el procedimiento adecuado para reclamar los posibles derechos vulnerados de los concejales respecto al derecho de disponer toda la documentación de los asuntos incluidos en el orden del día del Pleno. Pero aun cuando el Ayuntamiento readecuara la alegación y la considerase un recurso de reposición, éste sería extemporáneo...".

Respecto a la segunda cuestión, indica que en la documentación que obra en el expediente y concretamente en el documento suscrito por el arquitecto de Nasuvinsa, se justifica porqué se trata de una modificación puntual pormenorizada. Al respecto, don José Luis Echegaray indica:

"La aprobación inicial de esta modificación, se dio a nuestro entender de forma irregular, ya que se presentó de tapadillo en el ultimo pleno antes de las vacaciones para que no pudiera ser recurrido y sin la documentación necesaria para su estudio y posterior debate, motivo por el cual presentamos una alegación que no ha sido resuelta hasta el día hoy, por lo que entendemos que no se puede dar esta aprobación definitiva mientras no se resuelva dicha alegación.

Tengo que decir también, que, en previsión de algún tipo de patraña de este tipo por parte de BILDU a nuestra alegación (como finalmente ha ocurrido), también presentamos un recurso ante el tribunal Administrativo de Navarra que ha sido admitido a trámite y se encuentra pendiente de

resolución.

Bi arrazoi hauengatik, gehi uztailaren 27ko osoko bilkuran azaldu genituenengatik, orain errepikatu behar ez ditugunak, Lesakako Udal Planaren aldaketa honen kontra emanen dugu botoa".

Por estos dos motivos, más los que ya expusimos en el pleno del día 27 de julio y que no los vamos a repetir, votaremos en contra de esta modificación del Plan Municipal de Lesaka".

Ondoren bozketa egin da. Bilduko sei zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ/PNVko lau zinegotzien kontrakoarekin, horrela korporazioko kideetako legezko kopuruaren gehiengo absolutua izanik, Osoko bilkurak erabaki du:

Seguidamente se procede a la votación. Con el voto favorable de los seis concejales de Bildu y el contrario de los cuatro concejales de EAJ/PNV, lo que supone la mayoría absoluta del número legal de miembros de la corporación, el Pleno acuerda:

1 – Behin betiko onespena ematea *Lesakako Udal Planaren aldaketa xehakatua. Komentu Kalea* dokumentuari, Kultura Etxean biomasaz hornituriko azpiegitura energetikoaren ezarpena ahalbidetzeko.

1°) Aprobar definitivamente la *Modificación pormenorizada del Plan Municipal de Lesaka. Komentu kalea*, para hacer posible la implantación de una infraestructura energética por biomasa en la Casa de Cultura.

2 – Nafarroako Gobernuko Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari bidaltzea aipatu dokumentu honen ale izapidetua, emaniko txostenekin batean, eta erabaki honen berri ere ematea.

2°) El envío al Departamento de Fomento y Vivienda del Gobierno de Navarra de un ejemplar diligenciado del documento citado, junto con los informes emitidos, dándosele igualmente traslado de este acuerdo.

3 – Behin betiko onespena emateko erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3°) Que se publique en el Boletín Oficial de Navarra el presente acuerdo de aprobación definitiva.

**3 – PRESO GAIXOEN ESKUBIDEEN ALDEKO AKORDIO-PROPOSAMENA.**

**3 – PROPUESTA DE ACUERDO A FAVOR DE LOS DERECHOS DE LOS PRESOS ENFERMOS.**

Espedientean ageri da akordio-proposamena (2.493. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean, 2012/09/18koa). Gai honen harira, **Jose Luis Echegaray jaunak** adierazi du: "Guk, EAJ/PNVkoek, berresten dugu, bertze behin, gure

Obra en el expediente la propuesta de acuerdo (entrada nº 2.493, de 18/09/2012 en el Registro General del Ayuntamiento). En relación a este tema, **don José Luis Echegaray** indica: "Nosotros los de EAJ-PNV nos reafirmamos, una

konpromisoa giza printzipioekin eta pertsona guzien eskubide eta libertateen defentsarekin.

Gainera, pentsatzen dugu printzipio eta eskubide hauek halakoengatik ezagutu behar direla, edozein aukeratik, abaguneetatik edo interes politikoetatik independenteki. Askatasunik ez duten pertsonek, zalantzarik gabe, eskubideak dituzten subjektuak dira eta horrela aitortu eta konplitu behar dira, justiziaren arabera.

Oinarri honetatik abiatzeak guretzat dakar une hauetan aitzinera egitea bi jarduera lerrotan:

Lehenik eta behin, giza eskubideen errespetuarekin eta bermearekin konpromisoa exijitzea espetxe-politikan. Hau da, amaitzea sakabanatze-politikarekin, urruntzearekin, inkomunikazioarekin, preso gaixoen osasun eskubideak urratzearekin, osasun, heziketa eta eskubide linguistikoen urratzearekin, eta egokitzen diren onurak edo kartzelatik ateratzeak aplikatzea, diskriminaziorik edota bidegabekeriarik gabe.

Bigarrenik, guk gaur adierazten dugu, berriro, gure konpromisoa akzio politiko instituzionalarekin materia hauetan gertatu diren salbuespenezko jarduerekin bukatzeko, azken urteetan galdutako askatasunetako eta giza eskubideetako atalase minimoa berreskuratuz, horrela legeren eta araudiren interpretazioak, legearen berezko espirituaren kalterako doazenak, saihesteko.

Gai baldin bagara bi linea hauetan lan egiteko, karrankarik gabe eta horrelako aferek behar

vez más, en nuestro compromiso con los principios humanitarios y con la defensa de los derechos y libertades de todas las personas.

Además pensamos que estos principios y derechos deben ser reconocidos como tales, independientemente de cualquier consideración de oportunidad, coyunturas o intereses políticos. Las personas privadas de libertad son sin duda sujetos de derechos y así deben ser reconocidos y cumplidos en razón de la justicia.

Partir de esta base conlleva para nosotros, avanzar en estos momentos, en dos líneas de actuación:

Exigir, en primer lugar, un compromiso con el respeto y garantía de los derechos humanos en la política penitenciaria. Esto es, acabar con la política de dispersión, alejamiento, incomunicación, vulneración de los derechos de los presos enfermos, derechos de salud, educación, lingüísticos y aplicación de beneficios o excarcelación a que hubiera lugar sin discriminación ni arbitrariedad.

En segundo lugar, nosotros expresamos nuevamente hoy nuestro compromiso de acción político institucional para acabar con las actuaciones excepcionales que en estas materias se han producido, recuperando un mínimo umbral de libertades y derechos humanos perdido en los últimos años, de manera que se eviten interpretaciones de leyes y reglamentos que vayan en detrimento del propio espíritu de la ley.

Si somos capaces de trabajar en estas dos líneas, sin estridencias y con la suficiente discreción

duten diskrezio nahikoarekin, beti kontatu ahal izanen da gurekin.

Baina, honek ez du erran nahi aurkeztuko zaigun edozein motako mozio politikoki oportunistaren alde egin behar dugunik, aldez aurretik negoziatu gabe, eta ikusita BILDUk ez dituela onartzen ez puntuka bozkatzea ezta haiek aldatzea ere, ez dugu mozio honekin bat eginen idatzita dagoen moduan."

**Alkate jaunak** erantzun dio: "Aipatu nahiko nuke ez dela egia Bilduk ez duela onartzen bozketak puntuka egitea, zeren eta kasuak eman dira horrela egin direla".

**Echegaray:** "Ez da egia Bilduk onartzen dituela aldaketarik beraien mozioetan, ezta puntuka bozkatzen direla ere, eta hori egiaztatzeko ez da Udal eta Korporazio honetako bereko aitzineko aktak ikustea bertzerik behar. Aurkeztu den mozioren bat aldatzea saiatu garen aldioro, erran zaigu ez dela Lesakan idatzia izan eta horregatik ezin zela aldatu. Puntuka bozkatzea saiatu garen aldietan ez zaigu utzi eta bozkatzera pasatu da alkate honen beraren aginduaz, gure aitzinean aholkatua, bozketa egin behar zen mahai berean, orduan alkateorde zen Koldo Erquiciarengantik. Beraz, errespetu pizar bat eskatzen dut guk baieztatzen dugunari, eta alkateari eskatzen diot errepasoa eman diezaien bere Udal honetako aktei, frogatzeko zenbat aldaketa baimendu dituen karguan daraman epe laburrean".

**Alkatea:** "Aipatu nahi dut mozio hau, gainerakoak bezalaxe, dagokion batzordetik pasa dela eta bertan eztabaidatzeko aukera izan duela eta

con la que este tipo cuestiones necesitan, se podrá contar siempre con nosotros.

Pero esto no quiere decir, que vayamos a apoyar cualquier moción políticamente oportunista que se nos presente sin previa negociación y en vista que BILDU no permite votaciones por puntos ni modificaciones de las mismas, no apoyaremos esta moción según se encuentra redactada"

Responde el **señor Alcalde**: "Quisiera indicar que no es cierto que Bildu no acepte el hacer las votaciones por puntos, ya que se han dado casos en que se ha hecho así".

**Echegaray**: "No es cierto que Bildu acepta modificaciones en sus mociones ni que se voten por puntos y para comprobarlo me remito a actas anteriores de este mismo Ayuntamiento y corporación. Todas las veces que hemos intentado modificar alguna moción presentada, se nos ha dicho que no ha sido redactada en Lesaka y por lo tanto no se podía modificar. Las veces que hemos intentado que se vote por puntos no se ha permitido y se ha pasado a votación por orden de este mismo alcalde, asesorado en nuestra presencia, en la misma mesa de votación, por el entonces teniente de alcalde Koldo Erquicia. Por lo tanto pido un cierto respecto a lo que afirmamos y solicito al alcalde dé un repaso a las actas de su propio Ayuntamiento para comprobar cuantos cambios ha permitido en su corta época en el cargo".

**Alcalde**: "Quiero indicar que esta moción, como las restantes, se ha pasado por la Comisión correspondiente y que en la misma ha tenido

Jose Luisek egiten dituen afirmazio horiek direla eta, gomendatzen diot berak ere aktei errepaso bat ematea eta ez naiz eztabaida antzutan sartuko".

ocasión para debatir y en cuanto a esas afirmaciones que realiza José Luis, le recomiendo que él también dé un repaso a las actas y no me meteré en discusiones estériles".

**Echegaray:** "Batzorde informatibo batean mozioa ikusi izanak ez du erran nahi haren edukia negoziatu denik. Batzorde informatiboetan aipatu mozioaren edo mozioen berri izaten dugu, eta, hortik abiatuta haien edukia aztertzen dugu eta berriro ere ziurtatzen dut gaur arte ez dela bat bakarra ere negoziatu."

**Echegaray**: "El que la moción haya sido vista en una comisión informativa no quiere decir que se haya negociado su contenido. En las comisiones informativas es cuando nos enteramos de la existencia de dicha moción o mociones y, a partir de ahí, estudiamos su contenido y vuelvo a asegurar que hasta el día de hoy no se ha negociado ninguna".

**Alkatea:** "Bertzerik gabe, orain arteko hitzak Jose Luisenak dira. Nik ez dut horrekin bat egiten, baina bera libre da nahi duena errateko. Mozioa bozkatzea proposaten dut".

**Alcalde**: "Sin más, las palabras dichas hasta ahora son de José Luis. Yo no estoy de acuerdo con esa opinión, pero él es libre de decir lo que quiera. Propongo que se vote la moción".

**Echegaray**: "Ez dugu arrazoia izan nahi. Baizik eta argitu zein den Udal honetan bizitzen ari den egoera erreala".

**Echegaray**: "No pretendemos tener razón. Sino aclarar la situación real que se está viviendo en este Ayuntamiento".

Eztabaida amaituta, Osoko bilkurak, Bilduko aldeko sei botoekin eta EAJ/PNVko kontrako lauekin kontrakoekin, erabaki du aipatu proposamena onartzea, eta, ondorioz, honako erabaki hauek hartu ditu:

Finalizado el debate el Pleno, con los seis votos a favor de Bildu y los cuatro en contra de EAJ/PNV, acuerda aprobar la citada propuesta y, en consecuencia, adopta los siguientes acuerdos:

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.

1.- Este Ayuntamiento quiere expresar su preocupación ante la situación de urgencia y gravedad de los presos enfermos. Al mismo tiempo insta al gobierno de Madrid a dar pasos reales en el cumplimiento de la ley vigente de acuerdo con la voluntad de la mayoría de este pueblo.

2.- Udal honek, nazioarteko eta espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen

2.-Este Ayuntamiento, teniendo en cuenta las leyes internacionales y españolas, pide la libertad condicional para estos trece presos con

baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

3.- Udal honek erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministerioari eta Kartzela Zaintzako Epaileari eta baita komunikabideei ere bideratuko die.

enfermedades graves e incurables. Para que reciban los tratamientos de salud necesarios en las condiciones convenientes y que esta situación no suponga una condena añadida para ellos y sus familiares.

3.- Este Ayuntamiento comunicará esta decisión al Ministerio del Interior y al Juez de Vigilancia Penitenciaria de Madrid, así como a los medios de comunicación

**4 - IKUR ETA BANDEREI BURUZKO ERABAKIA.**

Espedientean ageri da akordio-proposamena (2.569. sarrera Udalaren Erregistro Orokorrean, 2012/09/27koa).

**Jose Luis Echegaray jaunak** adierazi du: "Guk ez genuke arazo handiegirik izanen mozio honekin bat egiteko, betiere jakin izan bagenu zer erran nahi duen laugarren puntuak, honako hau dionean: "Mozio honen alde gauden alderdiok eta udalok herri ekimen bat lantzeko konpromisoa hartzen dugu". Baina, ezin gara konprometitu lan egitera bertze batzuek hartzen ahal duten ekimenean, ezagutzen ez duguna, eta kontuan hartuta BILDUk ez duela uzten bozkatzea ez puntuka ezta haien mozioak aldatzea ere; beraz, arreta sinpleagatik ez gara akordio-proposamen honen alde agertuko".

**Alkate jaunak erantzun du:** "Nik, hori horrela bada, ez dugu inolako arazorik Jose Luisek aipatu duen puntu horretan aldaketa txiki bat egitera. Bertan "alderdiak" kentzea".

**Echegaray:** "Ikusita Bilduk onartu egin

**4 – ACUERDO SOBRE LOS SÍMBOLOS Y BANDERAS.**

Consta en el expediente la propuesta de acuerdo (entrada nº 2.569, de 27/09/2012 en el Registro General del Ayuntamiento).

**Don José Luis Echegaray** señala: "No tendríamos mayor problema en apoyar esta moción siempre que hubiéramos sabido a que se refiere el punto cuatro, cuando dice que: "Todos los Partidos y Ayuntamientos que apoyamos esta moción nos comprometemos a trabajar una iniciativa popular". Pero no podemos comprometernos a trabajar en una iniciativa que puedan tomar otros y que no conocemos y teniendo en cuenta que BILDU no permite ni votar por puntos ni modificar sus mociones, por simple precaución no apoyaremos esta propuesta de acuerdo".

Responde el **señor alcalde**: "Yo, si eso es así, no tenemos ningún problema para hacer una pequeña modificación en ese punto que ha indicado José Luís. Quitar de la misma la palabra "partidos".

**Echegaray**: "En vista de que Bildu acepta la

duela “alderdiak” hitza mozioaren edukitik kentzeko proposamena, eta frogatzeko mozioak beti izan daitezkeela akordioen ondorioa, eta argi utzita hori zela hain zuzen ere mozioan aldatzeko eskatu genuen hitza, gure botoaren zentzua aldatuko dugu eta haren alde bozkatuko dugu”.

Horren ondotik, Osoko bilkurak, kideen aho bateko botoarekin, erabaki du onartzea aipatu proposamen aldatua, eta, ondorioz, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Herri baten sinboloak eta ikurrak ezin direla inposatu adierazi nahi diogu Nafarroako Gobernuari baita Espainiako gobernuak Nafarroan duen delegaritzari eta ahalegin horretan ari diren guztiei. Euren sinboloak inposatzeagatik, gure nortasuna, gure pentsamoldea eta gure izaera ez dutela aldatuko argi utzi nahi diegu.
- Espainiako bandera jarraraztea eta ikurriña kenaraztea herritarren gehiengoaren borondatearen kontrakoa dela salatu nahi dugu, herri honetako gehiengo politiko eta sozialaren kontrakoa hain zuzen.
- Salatu nahi dugu gai honekin UPN eta bere gobernuak duten jarrera eta honetaz egiten duten erabilera partidista. Herriaren alde lan egin eta herriaren kezkez arduratu beharrean, ikurrak inposatzea eta geure nortasuna ezabatzeko ahaleginetan aritzea inolaz ere ez dela bidea adierazi nahi diegu.
- Gure ikurren alde, eta inposatutako

propuesta de eliminar “partidos” del contenido de la moción y en demostración de que las mociones siempre pueden ser fruto de acuerdos y dejando claro que era esa justo la palabra que habíamos pedido que se cambiara en la moción, cambiaremos nuestro sentido de voto y votaremos a favor de la misma”.

Tras ello el Pleno, con el voto unánime de sus miembros, acuerda aprobar la citada propuesta modificada y, en consecuencia, adopta los siguientes acuerdos:

- Queremos indicarle al Gobierno de Navarra, también a la Delegación que el Gobierno de España tiene en Navarra y a todos quienes participan en esa actuación, que los símbolos y banderas no se pueden imponer. Queremos dejarles claro que aunque nos impongan sus símbolos, no modificarán nuestra personalidad, nuestra forma de pensar y de ser.
- Queremos denunciar que el obligar a poner la bandera española y a quitar la ikurriña es en contra de la voluntad de la mayoría de la población, concretamente en contra de la mayoría política y social de este pueblo.
- Queremos denunciar la actitud que tienen con este tema UPN y su gobierno y el uso partidista que realizan de ello. Queremos manifestarles que el imponer los símbolos y esforzarse en anular nuestra personalidad, en vez de trabajar a favor del pueblo y ocuparse de las preocupaciones del pueblo, no es de ninguna forma el camino.
- Los ayuntamientos que aprobamos esta

ikurren aurka, mozio hau onartzen dugun udalok elkarrekin herri ekimen bat lantzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Erabaki hau ohiko bideetatik jakinaraziko zaie herritarrei, Nafarroako Gobernuko Lehendakariari, Toki administrazioko Kontseilariari eta Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkariari.

moción, adoptamos el compromiso de impulsar una iniciativa popular a favor de nuestros símbolos y en contra de los símbolos impuestos.

- Este acuerdo se notificará, por los conductos habituales, a los vecinos, al presidente del Gobierno de Navarra, al consejero de Administración Local y al delegado que tiene el Gobierno de España en Navarra.

**5 - HONDAR-BILKETAREN SISTEMA AUKERATZEA.**

2012ko uztailaren 26an Udaleko Erregistro Orokorrean jaso zen Bortzirietako Hiri Hondakinen kudeaketarako Mankomunitateak igorritako dokumentu bat (2.078. sarrera). Haren izenburua honako hau da: *2012. Baztan, Malerreka eta Bortzirietako materia organikoa biltzeko alternatiben azterketa,* eta ondoko hauek idatzi dute: Txema Elgorriaga Astondoa, Carlos Garaikoetxea Elso eta Miren Meoki Plaza jaun-andreek.

Horri buruz, **alkate jaunak** adierazi du: "Nafarroako Gobernuak eskatu du kudeaketa sistema bat aurkezteko, eta Mankomunitateak proposamen bat egin du, gaur arte aurkeztu diren hainbat alternatibaren artean eta han izan diren bilera irekietan eztabaidatu denaren ondorio gisa. Guk proposatzen dugu atez ateko sistema ezartzea. Baina, bakarrik bi zatikietan izanen litzateke, hau da: *gainerakoa eta organikoa.* Gainerako hondar-edukiontziak, berdeak izan ezik, momentuz, dauden bezala gelditukoliv lirateke".

**Jose Luis Echegaray zinegotzi** jaunak erantzun du: "Atez ateko sistema dagoeneko

**5 – ELECCIÓN DEL SISTEMA DE RECOGIDA DE RESIDUOS.**

El día 26 de julio de 2012 se recibió en el Registro General del Ayuntamiento (entrada nº 2.078) un documento enviado por la Mancomunidad para la Gestión de Residuos Sólidos Urbanos de Bortziriak. Su título es *2012. Estudio de alternativas de recogida de la materia orgánica de Baztán, Malerreka y Bortziriak* y está redactado por don Txema Elgorriaga Astondoa, don Carlos Garaikoetxea Elso y doña Miren Meoki Plaza.

Al respecto el **señor alcalde** indica: "El Gobierno de Navarra pide que se presente un sistema de gestión y la Mancomunidad hace una propuesta, entre diversas alternativas hechas hasta la fecha y como consecuencia de haberlo discutido en las reuniones abiertas que se han celebrado allí. Proponemos establecer el sistema puerta a puerta. Pero sería solo en dos fracciones, esto es: *resto* y *orgánico.* El resto de los contenedores de residuos, excepto los verdes, por el momento se quedarían como están".

El concejal **don José Luis Echegaray** responde: "Si ya el sistema de puerta a puerta nos

iruditzen baldin bazaigu ez dela bideragarria, bi zatikietan egitea, Bilduko bozeramaileak orain planteatu duen moduan, benetako lardaskeria iruditzen zaigu. Nik ulertzen dudanaren arabera, izanen litzateke behar den obra guzia egitea hondarrak atez ate biltzeko, baina bakarrik *organikoa eta gainerakoa zatikia* biltzeko, eta honen arabera, gaur egun bilketa tokiak edukiontziekin utziz, bakarrik edukiontzi berdea kenduta. Horrek eraginen luke karriketan zikinkeria bikoiztea, izan ere etxeko atarian hondarrak biltzeko posteak jasan beharko genituzke eta ez genituzke kenduko gaur egun dauden hondar-bilketa puntuak, eta hor pilatzen da zikinkeria. Halako zentzugabekeriaren aitzinean, gure proposamena gaur egungo lau edukiontziak mantentzearena da, bortzgarren edukiontzi bat (marroia) paratuz hondar organikoentzat eta berdea utziz gainerako zatikirako. Horrela zaborra ateratzen dutenek, behar duten egunetan egin ahal izanen dute, aldez aitzinetik jarritako ordutegirik gabe, atez ate bezalakoan, eta gehien bat ez duzulako zaborra etxean pilatuta eduki behar. Ez dizkizu baldintzatzen eguneroko ohiturak. Edozein momentuan jaisten ahal zara eta zaborra edukiontzian utzi, etxean higiene zuzena mantenduz. Karriketako garbiketa bermatzen du. Ekonomikoki hagitzez merkeagoa da. Bertzalde, pentsatzen dugu atez ate sistemarekin gurea bezalako herri batean irudi penagarria emanen genukeela zabor poltsak gure etxe aitzinetan zintzilikatuta, eta sistema honekin saihestuko dugu ikuskizun tamalgarri hori.

Afera honetatik ondorioztatzen duguna da,

parece que no es viable, el que se haga en dos fracciones, como ha planteado en este momento el portavoz de Bildu, ya nos parece una auténtica chapuza. Se trataría, según entiendo, de hacer toda la obra necesaria para la recogida de residuos puerta a puerta, para solo recoger el *orgánico* y la *fracción resto*, dejando según esto, actualmente, los puntos de recogida con sus contenedores, retirando únicamente el contenedor verde. Eso provocaría doblar la suciedad en las calles, puesto que tendríamos que soportar los postes de recogida de residuos en el portal de casa y no eliminaríamos los puntos de recogida de residuos actuales, que es donde se concentra la suciedad. Ante tal despropósito, nuestra propuesta, pasa por mantener los cuatro contenedores actuales, instalando un quinto contenedor (marrón) para residuos orgánicos y dejando el verde para la fracción resto, de modo que quienes bajan la basura, puedan hacerlo los días que lo necesiten y sin horarios prefijados como en el puerta a puerta y ante todo porque: no te condiciona el tener en casa la basura acumulada. No te condiciona los hábitos cotidianos. Puedes bajar y depositar en cualquier momento la basura en el contenedor, manteniendo la correcta higiene en el hogar. Garantiza la limpieza en las calles. Económicamente es mucho más barato. Por otra parte, pensamos que en un pueblo como el nuestro, daríamos una imagen lamentable con las bolsas de basura colgando frente a nuestras casas con el sistema puerta a puerta y con este sistema evitamos este lamentable espectáculo.

La conclusión que sacamos de esta cuestión

bortzgarren edukiontziaren sistema herriko ohituretan aldaketa minimoa eraginen duen sistema dela, frogatu dena merkeagoa dela, garbiagoa eta erosoagoa, errespetatzen dituelako herritarren lan edo aisialdi ordutegiak, inor zaborren ordutegiaren zain egon gabe. Gainera, pentsatzen dugu gai honetan zorrotzak izan behar dugula eta herriari interesatzen zaiona ikusi. Inongo alderdi politikok ez zuen atez atekoa bere hauteskunde programan eraman, beraz inor da legitimatua orain hori inposatzeko, nahiz eta zinegotzien nahi adinako gehiengoa lortu. Pentsatzen dugu hurrengo udal hauteskundeetan, bakoitzak eskaini ahal izanen duela, bere hauteskunde programan, bakoitzari iruditzen zaion sistema, eta jendeak bozkatu ahal izanen duela. Orduan ikusiko da ea lesakarrek onartzen duten sistema hau ala ez.

Gainera, pentsatzen dugu berriro zaborrak gure etxeetako atean uzten hasteak berarekin daramala guttienez hogeita bortz urteko atzerapena denboran, edo ahantzi egin al zaigu gure herriaren irudia zaborra gure etxeetako atean pilatzen genuenean, kamioia biltzera pasatzen zen arteraino?

Eta azkenik, iruditzen zaigu ez duela inolako zentzurik Bortzirietako Mankomunitearen eremurako erabakiak hartzea hondarren kudeaketa moduari dagokionean, une honetan zeinean Nafarroako Gobernuak iragarri eta aurkeztu egin duen Mankomunitateen berrantolaketa urte bateko epean, non aurreikusten den Bortzirietako zonaldearen bat egitea Larraun eta Sakanarekin, entitate bakarrean.

es que, el sistema del quinto contenedor es un sistema con el mínimo de cambios en las costumbres locales, demostradamente más barato, más limpio y más cómodo, ya que respeta los horarios laborales o de ocio de la población sin que nadie esté pendiente de los horarios de las basuras. Además pensamos que en este tema hay que ser rigurosos y ver lo que le interesa al municipio. Ningún partido político llevó el puerta a puerta en su programa electoral por lo que ninguno está legitimado para imponerlo ahora por mucha mayoría de concejales que haya conseguido, pensamos que en las siguientes elecciones municipales cada uno podrá ofrecer el sistema que le parezca a cada uno en su programa electoral y la gente podrá votarlo, entonces se verá si los lesakarras aceptan este sistema o no.

Pensamos además que comenzar a depositar de nuevo las basuras en la puerta de nuestras casas, supone un retroceso en el tiempo de por lo menos veinticinco años, o ¿es que se nos ha olvidado la imagen de nuestro pueblo cuando amontonábamos la basura en la puerta de nuestras casas hasta que el camión pasaba a recogerlo?.

Y finalmente consideramos que no tiene ningún sentido adoptar decisiones para el ámbito de la Mancomunidad de Bortziriak en relación con la forma de gestión de los residuos en un momento en que el Gobierno de Navarra ha anunciado y ha presentado la reordenación de las Mancomunidades en el plazo de un año previendo la unión de la zona de Bortziriak con Larraun y Sakana en una sola entidad.

Itxaron egin beharko da ikusteko zertan gelditzen den prozesu hau, zerbitzuak nola eman behar diren erabaki behar denean, hori horrela bada eremu hagitzez zabalagoa hartu beharko genukeelako kontuan".

Habrá que esperar en que queda ese proceso a la hora de tener en cuenta la forma en que se van a prestar los servicios porque si esto es así tendríamos que tener en cuenta un ámbito mucho más amplio".

**Alkatea:** "Gure helburua argi utzi nahi dut. Azken finean ahalik eta zabor gutxien sortzen den horretan ahalik eta gehien birziklatzea da. Aipatu den bosgarren kontenedorearen sistema aztertu dugu guk ere. Baita Mankomunitateak berak egindako azterketan ere, argi geratu dira sistema honekin lortzen diren emaitzak. Atez atekoarekin nabarmen portzentaje hobeak lortzen direla ageri da azterketa honetan. Berriz ere erran nahi nuke. Mankomunitateak deituriko bileretan, bai azterketa hau egin duten teknikariekin baita gainerako udalekin ere, gai honen inguruan eztabaidatzeko aukera izandu dela eta bertan gainerako herrietan nabarmendu den iritzia atez atekoaren aldekoa izan da. Atez atekoa bi frakzioetan biltzeko aukera egitea, hasiera bezala, jendearentzat ez horren aldaketa handia suposatzea izandu da. Baina ez dugu inondik inora atez ateko sistema integrala baztertzen eta ezarri nahi dugun sistema honek ez baditu espero ditugun emaitzak ematen, orduan ikusiko da ea aurrez aipaturikoa ezartzen den ala ez."

**Alcalde**: "Quiero dejar claro nuestro objetivo. En último extremo es el de producir la menor basura posible y de ésta que se produce, el reciclar la más posible. Nosotros también hemos analizado el sistema que se menciona del quinto contenedor. También en el estudio realizado por la propia Mancomunidad, han quedado claros los resultados que se obtienen con este sistema. En este análisis aparece que con el puerta a puerta se logran unos porcentajes notablemente mejores. Lo quisiera decir nuevamente. En las reuniones convocadas por la Mancomunidad, ya sea con los técnicos que han hecho este análisis, también con los restantes ayuntamientos, ha habido oportunidad de debatir en relación a este asunto y en las mismas, en los restantes pueblos, la opinión que se ha destacado es la favorable al puerta a puerta. El coger la opción para hacer la recogida en las dos fracciones del puerta a puerta, como comienzo, lo ha sido para que no suponga un cambio tan grande para la gente. Pero de ninguna forma descartamos el sistema integral puerta a puerta y si el sistema que queremos establecer no da los resultados que esperamos, entonces se verá si se establece o no el anteriormente mencionado".

**Echegaray:** "Ez dut ulertu alkate jaunak erran duen azkena. Hau da, atez ateko sistema inposatzen da eta ez baldin badu funtzionatzen

**Echegaray**: "No he entendido lo último que ha dicho el señor alcalde: ¿o sea que se impone el puerta a puerta y si no funciona volveremos al

lehengora itzuliko gara?. Dena dela, nola ez dudan sobera garbi, airean uzten dut. Hasierara itzulita, alkate jaunak erraten duenean herri eta mankomunitate guziek, afera honi buruz izan dituzten bileretan, atez atekoa erabaki dutela, oroitarazi behar da, herri eta mankomunitate hauetako bakarrik ere ez duela esperientziarik, beraz ezin dute emaitzei buruz hitz egin, Baztan, Maldaerreka eta Bidasoako herri eta mankomunitateei buruz ari baita. Guk, solas egiten dugunean atez ate biltzeko sistemari buruz edo bortz edukiontziekin biltzeko sistemari buruz ezarrita duten herriei buruz ari gara, eta, ondorioz, ezagutzen ditugu emaitzak. Solas egiten dutenean "Nafarroako Gobernuak exijitzen du", hori Bildu ezartzen ari den amarru ttiki bat da, gai honetan bere irizpidea inposatzeko, Foru Aginduak oinarritzat hartzen duen europar araudiak eskatzen duelako hondar organikoaren %50 birziklatu behar dela 2020 urtean, eta gaur egungo sistemarekin, 4 edukiontziarena, %35 birziklatzera ailegatzen da. Egia da portzentaje hori igo egin behar dela eta europar araudia bete heldu diren zortzi urteetan. Baina, egia da ere, bakarrik banatzeak eta bortzgarren edukiontzia paratzeak (marroia), gaur egungo berdea utziz *gainerakoa* izendaturiko hondarrarentzat, eraginen duen kontrolak, eskakizun hori betetzen duela soberan. Beraz, ez gaitezen utzi beltxarga-kantuengatik engaiatzen eta dei diezaiogun hobe birziklajeari "gordetako negozioa". Denok jakitun gara sistema hau asmatu zutenek (hau da, Oiartzun, Hernani, Usurbil eta Antzuolako ANVko alkate eta zinegotziak), elkarte bat sortu zutela, Garbitania

sistema anterior?. De todas formas, como no lo tengo excesivamente claro, lo dejo en el aire. Volviendo al principio, cuando dice el señor alcalde que todos los pueblos y mancomunidades, en las reuniones mantenidas sobre esta materia, han decidido que el puerta a puerta, hay que recordarlo, que ninguno de estos pueblos ni mancomunidades tienen experiencia y por lo tanto no pueden hablar de resultados, ya que se refiere a pueblos y mancomunidades de Baztán, Maldaerreka y Bidasoa. Nosotros, cuando hablamos del sistema de recogida puerta a puerta o de sistema de recogida con cinco contenedores, estamos hablando de los pueblos que ya lo tienen instalado y, por lo tanto, conocemos los resultados. En cuanto hablan que "el Gobierno de Navarra exige", esa es una pequeña argucia que está implantando Bildu para imponer su criterio en este tema, ya que la normativa europea en que se basa la Orden Foral, exige que se recicle el 50% del residuo orgánico en el año 2020 y con el sistema actual de 4 contenedores se llega a reciclar el 35%. Es verdad que hay que subir ese porcentaje y cumplir la normativa europea en los próximos ocho años. Pero también es verdad que solo la separación y el control que supone colocar un quinto contenedor (marrón), dejando el verde actual para el residuo denominado *resto*, cumple con creces con esa exigencia. Por lo tanto, no nos dejemos engañar por cantos de cisne y llamemos mejor al reciclaje "negocio encubierto". De todos es conocido que los inventores de este sistema (es decir, alcaldes y concejales de ANV de Oiartzun, Hernani, Usurbil y Antzuola) formaron una sociedad llamada

izenekoa, eta hori dela proiektuak egin eta sistema kontratatzen duena, baita Nafarroan ere. Horren froga da une honetan ezarri nahi dela sistema hori Bilduk gobernatzen dituen udal guztietan, bai Gipuzkoan bai Nafarroan. Frogatzen baldin bazaigu zenbakirekin atez atekoa errentagarria dela (eta ez naiz ari ekonomikoki, baizik eta helburua karriken garbiketa izanik), gaia balioetsi balioetsi ahal izanen genuke. Bitartean eta gaurko zenbakiek frogatzen dutenez bortzgarren edukiontzia garbiagoa, erosoagoa, merkeagoa eta Europak eta Nafarroak eskatzen duen emaitza lortzen duela ezin hobeto, haren alde segituko dugu".

Garbitania, que es la que hace los proyectos y contrata el sistema, también en Navarra. Prueba de ello es la implantación que se pretende en este momento de dicho sistema en todos los ayuntamientos gobernados por Bildu, tanto en Gipuzkoa como en Navarra. Si se nos demuestra con números que es rentable el puerta a puerta (y no estoy hablando económicamente, sino en objetivos de limpieza de calles), podríamos entrar al valorar el tema. Mientras tanto y como los números actuales demuestran que es más limpio, cómodo y barato y obtiene perfectamente el resultado exigido por Europa y por Navarra el quinto contenedor, seguiremos apoyando al mismo".

**Alkatea:** "Nik lehenbizi argi nahi dut, lehen bukaera aldera aipatutakoa. Igual ez naiz ongi esplikatu izanen. Erran nahi nuena zen proposatzen dugun sistemarekin ez badira bilatzen ditugun emaitzak lortzen, emaitza hobeak (bai birziklatzeari eta bai zabor gutxiago sortzeari begira) ematen dituen bertze edozein sistemaren alde eginen dugula".

**Alcalde:** "Yo quiero aclarar primero lo citado antes hacia el final. Igual no me he explicado bien. Lo que quería decir es que, si con el sistema que proponemos no se alcanzan los resultados que buscamos, optaremos por cualquier otro sistema que produzca mejores resultados (ya sea teniendo en cuenta el reciclaje o la menor producción de basuras).

Eztabaida bukatutakoan, Bilduko zinegotzien aldeko sei botoekin eta EAJ/PNVko lauen kontrakoarekin, Osoko bilkurak erabaki du zabor bilketa selektiboa ezartzea atez ate sistemarekin eta bi zatikietan.

Finalizado el debate, con los seis votos a favor de los concejales de Bildu y los cuatro en contra de los de EAJ/PNV, el Pleno acuerda que se implante la recogida selectiva de basura por el sistema puerta a puerta y en dos fracciones.

Ondoren, alkate jaunak adierazi du bozketa eginen dela EAJ/PNVk proposatu duen bortzgarren edukiontzia paratzearen aukerari buruz. Proposamen honen alde bozkatu dute alderdi horretako lau zinegotziek eta Bilduko seiek kontra eman dute. Beraz proposamen hau ez da onartu.

Seguidamente el señor alcalde indica que se someterá a votación la posibilidad de instalar el quinto contenedor propuesto por EAJ/PNV. Votan a favor de esa propuesta los cuatro concejales de la formación, haciéndolo en contra los seis de Bildu. Queda por lo tanto rechazada.

**6 – ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Zinegotzi guziei pasatu zaie posta elektronikoz azken bileratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (355.etik 394.era, biak barne).

Ondoren eta Toki-Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihoan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

Ez da inolako gairik planteatu.

**7 – OSOKO BILKURAKO KONTROL-JARDUERA. ESKARI-GALDERAK.**

José Luis Echegaray jaunak zera dio: "2011ko irailean albienteek salatu zituzten hainbat obra Lesakako 1. poligonoko 179. partzelan egiten ari zirenak. Gainera, hile eta urte bereko 9an egin zen osoko bilkuran, egiaztatu ondoren ez zela inolako dekreturik edo idatzirik bidali obra horiek gelditzeko agindua emanez, nere taldeak galdera bat egin zion alkateari, ea zer arrazoiengatik ez zen inolako neurririk hartu.

Galdera horri alkate jaunak ezustean

**6 - CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA**

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía desde la última sesión hasta el día de hoy (números 355 a 394, ambos inclusive).

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.

No se plantea cuestión alguna.

**7 - ACTIVIDAD DE CONTROL DEL PLENO. RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Don José Luis Echegaray manifiesta: "En Septiembre de 2.011, fueron denunciados por los Alguaciles una serie de obras que se estaban realizando en la parcela n° 179 del polígono n° 1 de Lesaka. Además en el pleno celebrado el día 9 de ese mismo mes y año, habiendo comprobado que no se había enviado ningún decreto ni circular ordenando la paralización de las obras mi grupo planteó una pregunta al Alcalde sobre los motivos por los que no se había tomado ninguna medida.

Pregunta que fue sorpresivamente

erantzun zion, erranez *"ez zuela obra gelditzeko agindurik eman haiek gelditu dutelako eta gainera Irigoyen jaunak kontrataturiko teknikariak barkamena eskatu ziola".* Sorturiko arazoari irtenbiderik eman gabe eta gure aholkuei kasu zipitzik egin gabe, alkate jaunak 2012ko uztailaren 6an ebazpen bat eman zuen, eta haren bitartez **DAKA QUADS S.L.ri (Juan Ignacio Irigoyen Garcia jauna)** jarduera eta obra baimena eman zitzaion Alkaiaga auzoan dagoen lur-eremu batean tailer bat eta motozikletak eta ziklomotoreak saltzeko puntu bat behin-behinekoz ezartzeko.

Anitzetan abisua eman ondotik, bai idatziz, bai hitzez, obrak ez direla emaniko lizentziaren arabera egiten ari eta kontuan hartuta alkate jaunaren eta bere hirigintzako zinegotziaren utzikeria egoera honen aitzinean, ez zait bertze erremediorik gelditzen horri buruzko hainbat galdera egitea baino.

1 – Zergatik uzten dute alkate jaunak eta bere hirigintzako zinegotziak 1.295 metro koadroko hormigoizko nabea eraikitzea emaniko lizentzia prefabrikaturiko moduluentzat baldin bada?

2 – Alkate jaunak eta bere hirigintzako zinegotziak nabea eraiki arte utzi nahi dute, itzulbiderik gabeko politika aplikatzeko eta denbora pasatzen utzi , ea inork ez duen salaketarik egiten?.

Egiten ari den bertze ilegaltasuna da uzten zaiola eraikitzen emaniko jarduera-baimena ordaindu gabe; horregatik zera galdetzen dut:

respondida por el Sr. Alcalde diciendo, *"que no había ordenado parar la obra porque ellos la han paralizado y además que el técnico contratado por el Sr. Irigoyen, le había pedido perdón".* Sin haber dado solución al problema planteado y haciendo caso omiso a nuestras advertencias el Sr. Alcalde dictó una Resolución el día 6 de julio de 2.012 por la que se acuerda conceder a **DAKA QUADS SL (don Juan Ignacio Irigoyen García)** licencia de actividad y de obra para la instalación provisional de un taller y punto de venta de motocicletas y ciclomotores en una finca situada en el barrio de Alkaiaga.

Habiéndole avisado en infinidad de ocasiones, tanto por escrito como verbalmente de que las obras no se están realizando según licencia otorgada y ante la desidia demostrada por el Sr. Alcalde y su concejal de urbanismo ante esta situación, no me queda más remedio que plantearle una serie de preguntas al respecto.

1º ¿Por qué permiten el Sr. Alcalde y su concejal de urbanismo que se esté construyendo una nave de hormigón, de 1.295 metros cuadrados cuando la licencia concedida es para módulos prefabricados?

2º ¿Pretenden el Sr. Alcalde y su concejal de urbanismo dejar que se acabe de construir la nave, para aplicar la política de hechos consumados y dejar que pase el tiempo a ver si no lo denuncia nadie?.

Otra ilegalidad que se está cometiendo es que se le permite construir sin haber abonado la licencia de actividad concedida, por lo que pregunto.

3 – Zeren zain dago alkate jauna interesatuari eskatzeko ordain ditzala emaniko jarduera- eta obra-baimenei dagozkien tasak, gaur egun ordaindu gabe baitaude eta obrak segitzen duenean?.

3° ¿A qué espera el Sr. Alcalde para exigirle el pago de las tasas correspondientes a las licencias de actividad y de obra concedidas, ya que a día de hoy no han sido abonadas y la obra sigue?

4 – Zer onura ateratzen dute alkate jaunak eta hirigintzako zinegotziak enpresa honen aitzinean erakusten duten permisibitatearekin?.

4° ¿Qué beneficio sacan el Sr. Alcalde y el concejal de urbanismo de la permisividad que demuestran ante esta empresa?

Azkenik, eta nik jakiteko zer neurri hartu.

Finalmente y para que yo sepa qué medidas adoptar.

5 – Alkate jaunak obra hau geldiarazteko asmoa du? BAI ala EZ, eta noiz".

5° ¿El Sr. Alcalde tiene la intención de decretar la paralización de esta obra?, SI o NO y cuando".

Alkate jaunak adierazi du galdera hauei hurrengo bilkuran emanen diela erantzuna.

Indica el señor alcalde que dará respuesta a estas cuestione en la próxima sesión.

Aipaturiko egunaren ilunabarreko zortziak eta berrogeita hamabi minutu direla, eta, eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

Siendo las veinte horas y cincuenta y dos minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretario, certifico.